

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2018-2019)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (7. or.) erantzuntaulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. “Gaur ekarritako liburuak izan _____ beste guztiak irakurri ditu”.
 - a) ez ezik
 - b) ordez
 - c) ezik**
 - d) beharrean

2. “Gu isil-isilik _____, laster konturatu zen non ginen gu ezkatututa”.
 - a) egon ere
 - b) egonda ere**
 - c) egoteagatik
 - d) egotearren

3. “Nik _____ da ordenagailu hori”.
 - a) daukadan bezala
 - b) daukadana bezalakoa**
 - c) daukadana bezala
 - d) daukadan bezalakoa

4. “Nagusiak erabateko konfidantza dauka _____. Ez du beste inor hartu nahi”.
 - a) zuregatik
 - b) zugan**
 - c) zutan
 - d) zutaz

5. “Kemen handiz _____ ekologistek lanean”.
 - a) ari ziren
 - b) ziharduten**
 - c) zirauen
 - d) zebiltzan

6. “Ume horrek amaren babes behar du gau eta egun”. Zer da umea?
 - a) Amatia.
 - b) Amazulo hutsa.**
 - c) Amakoi hutsa.
 - d) Amazalea.

7. Esaldi hauetatik, zein EZ da zuzena?
 - a) Atxilotuko dizute.**
 - b) Deituko dizute.
 - c) Eskertuko dizute.
 - d) Itxarongo dizute.

8. “Ez nintzen elurretara joan, _____”.
 - a) hanka hautsi bait nuen.
 - b) hanka hautsi bainuen.**
 - c) hanka hautsi baitnuen.
 - d) hanka autsi bait nuen.

9. Nola idazten da 1.753 zenbakia?
a) Mila zazpichun berrogeita hamahiru.
b) Mila zazpichun eta berrogeita hamahiru.
c) Mila zazpichun eta berrogei eta hamahiru.
d) Mila zazpichun berrogei eta hamahiru.
10. “Zaude lasai, ez _____ inori esango!”
a) diodala
b) badiot
c) diot eta
d) diodan
11. “Oraindik ere ez dakit joango _____”.
a) banaiz
b) banaizen
c) naizen
d) naizenik
12. “Gezurretan eta azpizokoa ibiltzen _____ al zara zu ere?”. Zein da egokiena?
a) denekoa
b) direnetakoa
c) dena
d) zarenetakoa
13. “Gonbidapena _____ bidali zion, ez idazkariak”.
a) zuzendariak bera
b) zuzendari berberak
c) zuzendari berak
d) zuzendariak berak
14. “Boto gehien atera zuena izendatu dute _____”.
a) arduraduntzat
b) arduradun bezala
c) arduraduna
d) arduradun
15. “_____ epeldurik, elurra _____ bihurtzen hasi zen”.
a) Eguzkiak / ur
b) Eguzkiagatik / ura
c) Eguzkiaz / uretan
d) Eguzkiarekin / urean
16. “Santimamiñeko marrazkiak gure _____ eginak dira”.
a) arbasoak
b) arbasoek
c) arbasoengatik
d) arbasoengandik
17. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?
a) Ikaslegoaren %60a zuzendariaren erabakiaren kontra dago.
b) Ikasleriazko %60 zuzendariaren erabakiaren kontra dago.
c) Ikasleriako %60a zuzendariaren erabakiaren kontra dago.
d) Ikasleriaren %60 zuzendariaren erabakiaren kontra dago.

18. Hurrengo hitzen bat tokiz kanpo dago. Zein sortatan?
- Aska, ezkata, ukuilua.**
 - Branka, lema, popa.
 - Enbata, tximista, trumoia.
 - Gerezia, masusta, madaria.
19. Euskara batuan, zein dago gaizki idatzita?
- Eginarazi.
 - Adierazi.
 - Betearazi.
 - Jakinerazi.**
20. "Trakasle horrek _____ eta ez dut inoiz gaindituko gai hau". Zein da egokiena?
- begiz jo nau
 - begitan hartu nau**
 - begikoa bota dit
 - begiz hartu nau
21. Puntuazio zeinuen dagokienez, esaldi hauetako zein dago GAIZKI?
- Laudioko zure lehengusu zaharrak, ez daki oraindik hori.**
 - Askotan entzun du, baina ez du gogoratzen.
 - Edozeinek egin dezake; hala ere, ni ez naiz ausartuko.
 - Horrela zioen zure amak: "Etorriko haiz gautu baino lehen!"
22. "_____ diru gehiago izan, _____ gehiago gastatzen dugu".
- Gero eta / hainbat
 - Gero eta / gero eta
 - Zenbat eta / hainbat eta**
 - Orduan eta / orduan eta
23. "Gauza guztietan lagunduko zaitut, _____ atsegingarrietan _____ nekagarrietan.
- bai / ez
 - hala / nola**
 - batean / bestean
 - bateko / besteko
24. "Lasterketa hura burutuko ez _____ beldur ziren".
- zutenaren
 - zuten**
 - zutela
 - zutelaren
25. "_____ lasai azterketa egiten duzun bitartean!".
- Zaudela
 - Zauden
 - Zaude**
 - Zoazte
26. Egitura hauetatik, zein da egokiena?
- Lau izarretako hotela.
 - Ehun kiloko harria.**
 - Ehun zalditako autoa.
 - Bi metrotako enborra.

27. "Ikasleek ni ordezkari aukeratuko _____, nik ez _____ huts egingo".
- banindute / nieke**
 - banindu / nituzke
 - balidate / nieke
 - banindukate / nuke
28. "Bi hilabete falta dira alabaren urtebetetzerako, eta _____ erosiak dituzu opariak?".
- honezkero
 - artean
 - dagoeneko**
 - oraindik
29. "Lan eskaintza bi izan ditu, eta azkenean _____ aukeratu du".
- Bizkaiko Foru Aldundiakoa
 - Bizkaiko Foru Aldundikoa**
 - Bizkaiko Foru Aldundikoa
 - Bizkaiko Foru Aldundiakoa
30. "Biltzarra Nafarroako hiriburuan egin zen, Iruñean, _____".
- bide batez
 - alegia**
 - besteak beste
 - bidenabar
31. "Praktikak _____ asko ikasten da".
- eginez**
 - egiten
 - egiteagatik
 - egiteaz
32. "Nirekin etorriko da, eta _____".
- zuekin ere bai**
 - ere bai zuekin
 - ere zuekin
 - baita ere zuekin
33. "Gaitz hori sendaezina da; beraz, _____".
- ez dago zer egin
 - ez dago ezer egiteko
 - ez dago zer eginik**
 - ez dago zer egitekorik
34. Hitz zerrenda hauetan, zein dago zuzen idatzita?
- Aharrausia, harrapatu, hilerria**
 - Gauz bat, anai bat, umekeria bat
 - Momentoa, sindikatoa, sekretua
 - Iparraldea, pakea, alperrik
35. Euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?
- Zer egin guztiak bere eskuetan usteko esan zion Martak.
 - Sartagina sutan jarri orduko, olioak irakiten hazi zen.
 - Botika hari esker berehala suspertu zen gaixoa.**
 - Sama guztia bizkarrean hartuta abiatu zen mendira.

36. “Zer ordutan ateratzen da Bartzelonarako autobusa?”.
- a) Lau t'erditan.
 - b) Lauetan.
 - c) Lauretan.**
 - d) Lautan.
37. “_____ egositako ogia oso gozoa da.”
- a) Esnean
 - b) Esnez
 - c) Esnearekin
 - d) Esnetan**
38. Zein da zuzena euskara batuan?
- a) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
 - b) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
 - c) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.**
 - d) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
39. “Gure etxe ondoan badaude neskato batzuk, _____”.
- a) ezagutzen dituzula
 - b) ezagutzen dituzunak**
 - c) zuk ezagutzen duzunak
 - d) zeinak ezagutzen dituzu
40. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
- a) Anima zaitetz, hemendik urte batera elkar hitz egingo dugu euskaraz.
 - b) Ahal duten bakoitzean elkarrek hitz egiten dute euskaraz.
 - c) Elkar ezagutzen gara, euskaraz hitz egiten dugulako.
 - d) Elkarri euskaraz hitz eginez ikasiko dugu.**
41. Aukeratu ezazu esaldi zuzena.
- a) Aunitzen ustez mundu honek ez duela konponbiderik.
 - b) Nik uste dut gizakia bera dela konponbiderik ez duena.**
 - c) Teoria batzuen arabera gatazka dela mundua funtzionarazten duena.
 - d) Baina nire ustez hori ez dela hala.
42. Honako esaldi hauetatik, idazkerari dagokionez, zein da zuzena?
- a) Gaisorik ez egoteko, jan arrautzak eta iogurrak bildur barik.
 - b) Gaixorik ez egoteko, jan arrautzak eta yogurthak beldur barik.
 - c) Gaisorik ez egoteko, jan arrautzak eta yogurtzak bildur barik.
 - d) Gaixorik ez egoteko, jan arrautzak eta jogurtak beldur barik.**
43. “_____ etortzeko esan dizut!”.
- a) Lehen bait lehen
 - b) Lehenbailehen**
 - c) Lehen-bait-lehen
 - d) Lehenbaitlehen
44. Zerrenda hauetatik zeinetan daude ortografia-akatsak?
- a) Arraultza, serbitzua, garraisia.**
 - b) Sinetsi, indartsua, txosna.
 - c) Hondartza, haragia, oihana.
 - d) Bukatuz gero, poz-pozik, orduz ordu.

45. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?
a) **Irakasle bat UPV/EHUtik AEBko MITera joan da.**
b) Irakasle bat UPV/EHUtik AEBetako MITera joan da.
c) Irakasle bat UPV/EHUtik AEBeko MITra joan da.
d) Irakasle bat UPV/EHUetik AEBko MITera joan da.
46. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?
a) Maratoia 42,195 km. luze da.
b) Maratoia 42,195km luze da.
c) Maratoia 42,195km. luze da.
d) **Maratoia 42,195 km luze da.**
47. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?
a) **1992ko apirilaren 4a.**
b) 1992ko apirilak 4an.
c) 1992ko apirilaren 4ean.
d) 1992.eko Apirilak 4.
48. Egitura hauetatik, zein dago OKER idatzita euskara batuan?
a) Bat-batean.
b) Nahas-mahas.
c) **Ostatuz-ostatu**
d) Seme-alabak.
49. Esaldi hauetatik, zein dago OKER euskara batuan?
a) Pozik gaude, ongi moldatu baikara.
b) **Amak barazkiak jan erazi dizkit.**
c) Zuek biok izan ezik, gainerakoak han ziren.
d) Harrezkero makal samar dabil.
50. Aukeratu ezazu zuzena.
a) Jende guztiarekin honekin joanen gara.
b) **Jende honekin guztiarekin joanen gara.**
c) Jende hau guztiarekin joanen gara.
d) Jende guzti honekin joanen gara.

ASKOTARIKO ITEMAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz ondoren dituzun hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, testuari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra erantzun-taulan, hiru testuen ondoren (13. orrialdean) dagoen horretan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA:

Aldatu

Astelehena. Ezohiko astelehena. Mundualdia bakarra izaten dela, ezin zuela hain abaildua segitu, eta Zorion doktorearen kontsultara estreinako bisita egitea erabaki zuen. Itxarongelan geratu zen, eserita, zain, noiz bere txanda helduko.

Itxaronaldia goxatzeko liburu bat eraman izana eskertu zuen. *Il Gattopardo*, Giuseppe Tomasi di Lampedusarena. Kontrazalean zioenez, egilea hil eta urtebetera argitaratu zuten, 1958an. Palmako Dukearen titulua zuen idazleak. Eta burura etorri zitzaion lehengo Palmako Dukeak lan gehiago egiten zuela oraingoak baino. Lampedusa zeraman grazian, eta ezin izan zuen uxatu burutik irla horren izena zein ezezaguna izango zen duela hirurogei urte eta zein etxeko bihurtu zaigun orain zoritxarrez. Kontrazaleko azken ahapaldian irakurri zuen eleberri horretan azaltzen den esaldi entzutetsu batek eman diola izena politikan maiz aipatzen den joera bati. «Ezer aldatzerik nahi ez badugu, alda dezagun dena». Gattopardismoa. Bezperako hauteskundeez akordatu zen orduan. Baina ez zuen gehiago abaildu nahi eta zutitu, atea kax-kax jo, eta, erantzunik ez izan arren, kontsultara sartu zen.

Ez zen inor ageri Zorion doktorearen kontsultan. Eta ikasi zuen zoriona, nonbait egotekotan, Zorion doktorearen itxarongelan dagoela.

Andoni Egaña
Berria, 2019/04/29 (moldatua)

1. Zer da egia *Gattopardismoari* buruz?
 - a. XX. mendean Italian sortutako literatura-mugimendu bat da.
 - b. Gaur egun, horri esker ezagutzen dugu Lampedusa uhartea.
 - c. **Zientzia politikoetan bereziki erabili ohi den paradoxa bat da.**

2. Zer paralelismo dago *Il Gattopardok* islatzen duen eta oraingo gizartearen artean?
 - a. Orain, aristokratek egindakoa hil ondoren hartzen da kontuan.
 - b. **Dirudienez, aldaketa politikorako joera berbera dago.**
 - c. Lehen bezala, orain ere ez da erraza zoriona aurkitzea.

2. TESTUA:

Irtenbide zirkularra, mundua irensten ari den nonahiko zaborraren kontra

Merkea, eraldatzeko erraza, iraunkorra, arina eta erabilera anizkoitzekoa denez, mundu mailako plastikoen ekoizpenak izugarri gora egin du, azken 52 urteotan. 1964. urtean, 15 milioi tona (MT) plastiko sortu ziren, eta 2016. urtean, aldiz, 335 MT, hau da, 22 bider gehiago. Europan, plastikoen eskaria 49,9 MTkoa izan zen, eta gehienbat ontziratze-aplikazioetarako bideratu zen lehengai. Ekoiztako plastiko-produktuetatik sortutako zaborraren % 42,6 bakarrik bildu zen, eta kantitate horretatik, % 41,6 erregai gisa erabili zen, % 27,3 zabortegietara bideratu zen eta % 31,1 birziklatu egin zen.

Datuen arabera, 2006-2016 bitartean birziklatutako plastiko kantitateak % 79 egin zuen gora. Datu horiek zalantza nagusi hau sortzen dute: geroz eta gehiago birziklatzen bada, zergatik jarraitzen du plastiko-ekoizpenak urtetik urtera nabarmenki handitzen? Izan ere, espero da 2036. urterako plastikoen ekoizpena bikoitza izango dela.

Aipatu bezala, plastikoak dituen aplikazio ugarietatik, ontziratzea da nagusia. Gizakiarentzat, egunerokotasunerako beharrezko eta funtsezko kontsumo-gai bihurtu da paketatzea, bilgarriek hainbat funtzio betetzen baitituzte, hala nola eustea, babestea, praktikoa izatea, komunikatzea eta elikagaien kalitatea nahiz egoera ona ziurtatzea. Erabileraren arabera aukeratzen da plastiko mota. Ontzietan gehien erabiltzen diren plastikoak Möbius zirkuluaz identifikatzen dira. Möbius zirkuluaren erdian, produktua zer plastiko motarekin egina dagoen adierazten duten 1etik 7ra arteko zenbakiak ikus ditzakegu. Ikurrak, aldiz, ez du adierazten produktua birziklagarria denik, ezta material birziklatuarekin egina dagoenik ere. Kontzeptu-nahasketa bera gertatzen da bi geziz osaturiko yin eta yang-aren antzeko antolamendua duen ikurrarekin. Puntu berdea deritzon ikurrak adierazten du produktuaren ekoizleek munduko lekuren batean plastikoa birziklatzeko ekarpen ekonomikoa egin dutela, eta ez, ordea, produktua birziklagarria denik edota material birziklatuekin egina dagoenik.

Alaitz eta Iraia Etxabide Etxeberria
Elhuyar aldizkaria, 2018ko maiatza (16.330. zenbakia)
(pasarte hautatuak)

3. Testuetan ematen diren datuetan oinarrituta, ...
 - a. ekoizten den plastikozko zabor gehiena birziklatu egiten da.
 - b. azken mende erdian plastiko-ekoizpena izugarri murriztu da.
 - c. **produzitzen den plastiko ekoizkinen erdia ere ez da jasotzen.**

4. Testuak dioenari erreparatuta, hauetako zein da baieztapen egokia?
 - a. Eralaldatzen erraza denez, produzitzen den plastikoaren herena birziklatzen da.
 - b. **Hainbeste plastiko ekoiztearen arrazoietakoa bat bere askotariko erabilera da.**
 - c. Gero eta gehiago birziklatzen dugulako egiten du gora plastikoen ekoizpenak.

5. Testuaren arabera, ...
 - a. **plastikozko ontziak oso erabilgarriak dira kontsumitzaileontzat.**
 - b. plastiko birziklagarriak aukeratzea kontsumitzaileon esku dago.
 - c. ezinbesteko kontsumo-gaia bilakatuko da plastikoa gizakiontzat.

6. Testuaren arabera, Möbius zirkulua ...
 - a. **plastiko motak sailkatzen dituen adierazle bat baino ez da.**
 - b. eta puntu berdea informazio bera ematen duten ikurrak dira.
 - c. material birziklagarriak identifikatzeko marka lagungarria da.

3. TESTUA:

Ohar batzuk Bob Dylan ikustera joan aurretik

Ostegun eta ostiral honetan Bob Dylan Euskal Herrian izango da, Iruñean eta Barakaldon hurrenez hurren. Tamaina horretako mito bat gure artera etortzeak eskutik dakartza espektatiba handiak, horrelakorik gabe ez baita posible 60 eurotik gora kostatzen diren sarrerek saltzea.

Baina komenigarria da kontzertuen aurretik zenbait gauza argitzea, bestela gero dezepzioak etortzen direlako —esperientzia pertsonala dut horretan: oraindik 2006ko Zurriolako kontzertuan zer jo zuen identifikatu nahian ari naiz— eta zenbait kasutan haserreak eta musikariaren kontrako iritzi asaldatuak.

Dylanek frustrazioa eragin dezake, aste honetako kontzertuetara joaten bazara pentsatzen Newporteko festibalean elektrikarekin atera eta XX. mendeko musika betirako aldatu zuen gazte zimatsu hura ikusiko duzula taula gainean.

Jorge Nagorek txio pare batean laburbildu du zer den 2019an Bob Dylanen kontzertu bat. Uste dut zerbitzu publiko handia egiten duten oharrak direla eta horregatik euskaratzea erabaki dut:

Abisu serioa bihar Bob Dylan ikustera doanarentzat:

- 78 urte ditu.
- Ez du diskoetako soinua, batzuetan hobe, besteetan okerragoa.
- Bihar joko dituen zenbait kantak 50 urte baino gehiago dauzkate.
- Gehienak suntsitu egiten ditu bertsi berrietan.
- Ez du gitarra jotzen.
- Pianoa jotzen du izkina batean.
- Ez du agurtzen, ez du keinurik egiten, ezta horrelako beste gauzarik ere.
- Kantatu, mugitu eta zuzendu egiten du.
- 20 kanta joko ditu, gehienez 21.
- Duela urte batzuk horietako batzuk aldatzen zituen kontzertu batetik bestera, orain kalkatuak dira.

Eta orain joan Dylan ikustera nahi baduzue. Baina kontzertuak pasatzean ez dut entzun nahi kexarik: abisatuta zeundeten.

Gorka Bereziartua Mitxelena

Boligrafo gorria bloga, 2019/04/25

7. Zein da idazlearen asmoa?
- Ikusleak kontzertuetara joatera bultzatzea.
 - Entzuleak emanaldien kalitateaz ohartaraztea.**
 - Musikariaren kontrako iritzia ematea.
8. Zein da ikuslea gogogabetzeko arrazoi nagusia horrelako kontzertu batean?
- Sarrerak garestiegiak izatea mito zahar bat entzuteko.
 - Musikariak espero den musika-tresna ez jotzea.
 - Lehenago doinuak lehenago erara entzun nahi izatea.**
9. Oharrei buruz, honako hau esan dezakegu:
- Idazleak bere esperientzia pertsonaletik atera dituela.
 - Beste zale baten adierazpenekin bat etorri dela Gorka.**
 - Testuaren egileak zerbitzu publiko serio batetik itzuli dituela.
10. Testuko aholkuen arabera, zer aurkituko du Dylanen kontzertuetara doanak?
- Aspaldiko hainbat abestiren aldaera eskasak entzutea.**
 - Musikaren aspaldiko mito handiaren emanaldi iraultzailea ikustea.
 - Kanta ezagunez osatutako kontzertu originala eta dinamikoa entzutea.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez 250 hitzeko idazlan bat egin, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. Ongi lotu idazlana gai horri.

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta artikulu batean zure arloko edo intereseko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute. Zabalkunde-lanean ari zara (ez testu akademiko bat prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako **apunteak** prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Azaldu gogoko duzun arkitekto ezagun baten lana	Parte-hartzea hirigintzan
Artea	Pintura erromanikoa	Eiffel dorrea eta Bizkaia zubia
Biologia	Bioetika	Ebola
Ekonomia	Ekonomia soziala mundu globalizatuan	Ekonomia berdeak
Filologia	Esan osteko interpretazioa eta aldiberekoa	Literatura Europan gaur
Filosofia	Filosofia eta politika	Immanuel Kant eta Ilustrazioa
Fisika	Fisikaren dibulgazioa	Uhin mekanikoak: soinua.
Geografia	Lehen sektorea Euskal Herrian	Europar Batasuna gaur egun eta etorkizunean
Geologia	Estratigrafia	Lurraren materialak: osaera, mineralak, silikatoak, arroak...
Gizarte zientziak	Demografia-arazoak	Alderdi politikoak
Gorputz-heziketa	Jarduera fisiko inklusiboa	Bakarkako kirolak
Historia	Gerra Hotza	Euskal trantsizioa
Informatika	NOSQL	Informatika eta osasuna
Informazioa	Telebistaren garrantzi soziala	Pertsuasioa publizitatean
Kriminologia	Zergatik ikasi kriminologia?	Kriminologia eta generoa: zergatik txertatu genero-ikuspegia?
Kimika	Formulazioa eta nomenklatura kimikan	Metalurgia
Lan-harremanak	Laneko segurtasuna eta osasuna	Langileen eskubideak eta betebeharrak
Matematika	Matematikaren historia laburra	Planoko geometria analitikoa
Osasuna	Elikadura eta osasuna	Homeopatia auzitan
Pedagogia	Hezkuntza-helburuen oinarriak	Indarkeria eskolan
Psikologia	Sexologia	Adimen-aniztasuna
Teknologia	Zertan datza <i>fracking</i> teknika? Erabilgarria da? Alde onak eta txarrak.	Robotika. Zertan dira robotak?
Zuzenbidea	Autonomia Erkidegoen Estatutuen erreforma-prozesua	Kooperatiben gaineko araudia

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: